

✓ **Saint Paul itsasontzia** (trad.)

Bordeletik joan ginen uraren gainean
Saint-Paul izena zuen untzi ederrean,
Heurtin kapitaina zen gurekin batean,
Calcotan arribatu osasun onean.

Gure jaun kapitaina han zaugun eritu
Sukar batek baitzuen lanjeroski hartu,
Noiz ere baitzen aphur bat sendatu,
Marseillako alderat ginen abiatu.

Hazilaren hogoia partitu ginena,
Astizkena baitzuen egun hark izena,
Itsaso zabalean baikinuen lana,
Orduan hautsi zaukun untxiaren lema.

Abendoaren seian kaloba trenkatu⁷⁹,
Eta untxiaz laster bide makur hartu,
Ahal nola baitugu geroztik gidatu
Aitzeak ez baigaitu hainitzik lagundu

Sekulan orhoitzeko Eguberri eguna
Hartan galdu ginuen gure etxe ona,
Ihurtziri, tenpesta, aize fanfaron,
Bela masta guziak hautsi daukiguna.

Laster eman ginuen hurerat xalanta,
Eta ordu berean harekin kanota,
Uretarat jautsi ginen guziak saltoka,
Herioari buruz hartzera borroka.

Oro akabatuak ez jakin zer egin,
Zorte egin ginuen zoin behar ginen hil,
Hartarat erori zen Julien Girardin
Bera presentatu zen bihotz onarekin.

1868ko kantu honek Bordeletik abiatu zen Saint Paul itsasontziaren Calcuta eta Hong-Kong-erako ibilbidea kontatzen du. Bertan, 317 langile txinatar ontziratu ziren Australiako mehatagietara joateko. Hainbat ezbehar pairatu ondoren, langileak uharte harritsu batean abandonatu zituzten. Beranduago, Saint Paul uhartera itzuli zenean, gizon haiek guztiak hilda zeuden. Papuatarrek jan omen zituzten.

Esta canción de 1868 relata la travesía del barco Saint Paul que partió de Burdeos con destino a Calcuta y Hong-Kong. Allí embarcaron 317 obreros chinos con destino a las minas de oro de Australia. Tras sufrir diversas penalidades, los

obreros fueron abandonados en una isla rocosa. Más tarde, cuando el Saint Paul volvió a fondear en la isla, no quedaba uno solo de aquellos hombres que, al parecer, habían sido devorados por los papúes.

Cette chanson écrite en 1868 raconte la traversée du Sain Paul qui partit de Bordeaux en route vers Calcutta et Hong Kong, ou 317 ouvriers chinois embarquèrent avec comme destinations les mines d'or en Australie. Après avoir enduré diverses souffrances, les ouvriers furent abandonnés sur une île rocheuse. Plus tard, lorsque le Saint Paul revint mouiller p`res de l'île, il ne restait plus aucun de ces hommes qui, sans doute, avaient été dévorés par les papoues.

✓ **Jançu janto** (trad.)

Jançu Janto dego de garçigorreta
Jançu Janto dego de garçigorra(bis)

Arre chacorra qei queçu gavian dani levari
Maria roche çerca mora de cantar viçerraco,
es naqui en Artajona Pordo gurgurengoa
Pordo pasa ochoa Candia jaroa pordo veroa

Egilerik gabeko pieza honen lehen aipamena 1500 urtearen inguruko "Cancionero Musical de Palacio" delakoari dagokio. Pepe Reyren aburuz, zaloma, hau da, marinelen lan-kantua izango litzateke. Euskara eta gaztelaniaren nahasketa ulertezinak adituen iritziak bi jarreratan banatzen ditu. Batzuen ustez, musikari erdaldun baten transkripzio txarra besterik ez litzakete. Beste batzuk, aldiz, festa-kantua delakoan daude, hitzen esanahiak axola handirik ez duelarik.

La primera referencia a esta pieza anónima corresponde al Cancionero Musical de Palacio, en torno al año 1500. En opinión de Pepe Rey, se trata de una zaloma o canción marinera de trabajo. La mezcla incomprensible de euskera y castellano divide a los expertos. Unos creen que se trata de una mala transcripción realizada por un músico no vascofono. Otros piensan que no es más que una canción festiva en tono de burla, en la que poco importa el sentido de la letra.

La 1ère féférence de cette oeuvre anonyme correspond au répertoire musical de Palacio, aux alentours de l'ann 1500. Selon Pepe Rey, il s'agit d'une "Zaloma" ou d'une chanson de travail de marin. Le mélange incompréhensible de l'euskara et de l'espagnol divise les experts. Les uns pensent qu'il s'agit d'une mauvaise adaptation réalisée par un mesicien non bascophone. D'autres penchent plutôt pour un chant festif version satirique, ou le sens des paroles n'a que peu d'importance.

✓ **Neska ontziratua** (trad.)

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk
aire bat entzun nuen itxasoko aldetik
itxasoko aldetik, untzian kantaturik.

Jaun kapitaina amak igortzen nau zugana
jin zaiten afaitera, hantxet deskansatzera
hantxe deskansatzera salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira
han emaiten diote lo bellarra papora
han emaiten diote lo bellarra papora

Jaun kapitaina nora ekarri nauzu huna?
zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura
hartu nauzun lekura, aita amen gortera.

Andre gazte xarmanta hoi ezin ditekena
hiru ehun lekutan joanak gina aintzina
hiru ehun lekutan joanak gina aintzina.

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera

XVII edo XVIII. mendeko kantu honen bertzio batzuk daude. Istorioa hainbat herritan ezaguna zen eta hainbat hizkuntzatan kantatzen zen. Itsasontziko kapitainaren istorioa da, neska gaztea engainatu eta bahitu zuena. Neskak bere buruaz beste egin nahiago zuen, bere patua onartu baino.

Existen diversas versiones de esta pieza, seguramente del siglo XVII o XVIII. La historia era conocida en varios países y cantada en diferentes idiomas. Se trata de un capitán de barco que engaña y rapta a una joven que prefiere suicidarse antes que aceptar su destino.

Il existe de nombreuses version de cette oeuvre, surement du XVII ou XVIIIème siècle. L'histoire était connue dans divers pays et interprétée en différentes langues. Un capitaine de bateau embobina et kidnappa une jeune fille qui préférer se suicider plutôt que d'accepter sa destinée.

✓ **Ville du Havre-ren hondoratzea** (trad.)

Untzi bat galdu zauku itsaso handian,
Berrehun bat pasajers juan da barnian,
Heiagora, marraska bazen han ordian,
Jaunari gomendatuz azken orenian.

Frantzesaren untzia Montobidoetan,
Komersan zabilana zonbeit urthe huntan,
Errekontru gaistua izan da heietan,
Erremarka bazuten hirur egun hartan.

Montobidoetarik lau egun orduko,
Abisa ukhan faltaz etziren galtzeko,
Odei bat jelgi zaie bistaren galtzeko,
Urak iretsi ditu argitu deneko.

Gerlako untzi handi angles batendako,
Malurra ukhan dute elgarren joiteko,
Azken oren tristia, haren emandako,
Othoitz egin dezagun gure arimendako.

Hirurehun pasajers, gehienak galdu,
Lauetan hogoietan bederatzi salbu,
Noiz eta direnien leihorrerat heldu,
Ama birjinak ditu bere haurrak bildu.

Jean Etcheparek 1873an sortutako kopia hauek Ville du Havre itsasontziaren istripua azaltzen dute, Loch Earn karga-ontziaren kontra talka egin eta minutu gutxitan hondoratu zena. Bere 313 bidaiaretarik 87 baino ez ziren salbatu.

Estas coplas compuestas en 1873 por Jean Etchepare cuentan el accidente del barco de pasajeros Ville du Havre que chocó con el carguero Loch Earn y se hundió en pocos minutos. De los 313 pasajeros solo salvarían la vida 87.

Ces couplets composés en 1873 par Jean Etchepare raconte l'accident de bateau "Ville du Havre" qui heurta le cargo Loch Earn et coula en quelques minutes. Seul 87 des 313 passagers furent sauvés.

✓ **Izar ederra** (trad.)

Izar ederra zauzkit gogoan bihotzeraino sarturik;
Horregatikan amorioa haundia dizut nik zuri;
Ez dut deseo beste Indiarik bazindauzkit logaturik.

Bentatik nator, bentara noa bentan da nere gogoan.
Bentako arrosa, krabelinetan hartu dut amorioa;
ez dut deseo beste, krabelinetan daukit amorioa

Aita Donostia musikologo ospetsuak jasotako maitasun-kanta herrikoa.

Canción de amor tradicional recogida por el afamado musicólogo Aita Donostia.

Chanson d'amour traditionnel recueillie par le célèbre musicologue Aita Donostia.

✓ **Bide luzea Ternuarat** (trad.)

Kontxatik doa untzia,
Han kompania guzia,
Ternuarat badoazi
Zerbait nahiz irabazi.

Bide luze Ternuarat,
Itsasoa zabal harat,
Zubirik ez pasatzeko,
Marinelen salbatzeko.

Itsasoaren gainean,
Untzi tzar baten menean,
Marinelak irriskuan
Herioaren eskuan.

Haize largoz badoazi
Zabalerat irabazi
Itsasoan barna urrun,
Begiz ezin ikus Larrun.

Han jotzen ditu kontristak,
Bendebal haize tenpestak
Denbora gaiztoa sartzen,
Gabitau biak erortzen.

Zeru guzia isuri,
Babazuza eta uri,
Marinelak trenpatuak,
Hotz handiak jelatuak.

Bela guziak harturik,
Belatxoa anekaturik
Untzia badoa segiz
Itsasoa handiegiz.

Gau beltzean ilunbean
Untzia tormentapean,
Aparailua desegin,
Ilunez deus ezin egin.

Elementak badarontsa,
Itsasoak abarrotsa,
Haize tenpesta uxia da
Itsasoan maskarada.

Marinelak harrituak
Tronpen jotzen unatuak,
Gabetu indar guziez
Etsitu bere biziez.

Furakanaren furia
Ifernuko iduria,
Satan beltzak darabila
Untzien galtzen dabila.

Uhainek untzia joka,
Gora behera saltoka,
Eta branka pulunpaka,
Kostaduba arrolaka.

Uhin baten bizkarrean
Bi uhinen hondarrean
Tirabira darabila,
Untziak agertzen gila.

Bere mastak galdu ditu,
Untzia motz da gelditu,
Itsasoak hautsi lema,
Trebek galtzerat darama.

Uhin hautsiak gainetik
Iragaten trebesetik,
marinelak erorika
Untzi askan igerika.

Gaineko zubia hautsi,
Ura tilaperat jautsi,
Tilapean ura gora,
Untzia doa hondora.

Marinelak biluziak,
Luzatu nahiz biziak,
Uhinpean igerika
Untzi puskei atxikika.

Marinelaren bentura
Itsasoan sepultura,
Sekulako bere fina,
Etixerako berriz mina.

Kopla anonimoak, 1798. urtean jasoak. Berez, hiru bertso-segida dira: “Partida tristea Ternuara”, “Itsasoko perillak” eta “Ternuako penak”. Bigarren segidan oinarritu gara. Ternuarako bidearen muturreko zailtasunak, hots, elementuen aurka borrokatu behar zuten itsasgizonentzako hil ala biziko erronkak azaltzen dituena.

Coplas anónimas recopiladas en 1798. En realidad se trata de tres series de versos: “Partida triste a Terranova”, “Los peligros del mar” y “Las penalidades de Terranova”. Hemos tomado como base la segunda serie, que relata la dificultad extrema de la travesía a Terranova para los marineros que tenían que luchar contra los elementos.

Compilation de couplets anonymes de 1798. En réalité il s’agit de 3 séries de vers: “départ vers Terre-Neuve”, “les dangers de la Mer” et “les souffrances de Terre-Neuve”. Nous avons pris comme base la 2ème série, qui traite de la difficulté extrême de la traversée vers Terre-Neuve, pour ces marins qui devaient lutter contre les éléments.

Donostiako hiru damatxo (trad.)

Donostiako hiru damatxo
Errenderian dendari.
Josten ere badakite, baina
ardoa edaten hobeki.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren goxua.
Hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basua.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkoa.

Donostiako neskatxatxoak
kalera nahi dutenean:
Ama piperrikez dago eta
banoa salto batean.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
banoa salto batean.

Arrosatxoak bost hosto ditu,
krabelintxoak hamabi,
Mari Josepa nahi duen horrek
eska bihotza amari.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska bihotza amari.

Euskal folkloreak doinu ezagunenatarikoa zalantzarik gabe, Euskal Herrian zehar hainbat bertso dituena.

Sin duda una de las melodías más populares del folklore vasco, que cuenta con versiones por toda la geografía de Euskal Herria.

Sans aucun doute une des mélodies les plus populaires du folklore basque, contant de nombreuses versions dans toute l'Euskal Herria (le pays basque).

✓ **Azken balea** (trad.)

| | |
|---------------------|-----------------------|
| Mila bederatziehun | Baliak egindako |
| da lehenengo urtean | salto ta marruak |
| maiatzaren hamalau | ziran izugarri |
| garren egunian | ta ikaratzekuak; |
| Orioko herriko | atzera egin gabe |
| barraren aurrian, | hango arriskuak, |
| balia agertu zan | arpoiakin hil zuten, |
| beatzik aldian. | han ziran hangoak. |
| | |
| Ikusi zutenian | Hamabi metro luze, |
| hala zebilela | gerria hamar lodi, |
| beriala jun ziran | buztan pala lau zabal |
| treñeruen bila; | albuetan pala bi, |
| arpoi ta dinamita | ezpainetan bizarrak |
| eta soka pila, | beste hilera bi |
| aguro ekartzeko | orrazian bezala |
| etzan jende hila. | hain zeuzkan ederki. |

José Luis Ansorenak dioenez: “1901ko maiatzaren 14an Donostiara sardinaz beteta bueltatzen ziren txalupa batzuek mila batera edo jarraitzen zien balea ikusi zuten. Itsasgizonek ahalegin handiak egin zituzten kaira lehenbailehen iristeko. Hala ere, baleak norabidea aldatu eta Zumaia eta Orio aldera abiatu zen. Hori ikusita, Donostiatik hamaikana gizonek gidatutako hamar txalupa irten ziren. Oriora gerturatzean bertakoek aurrea hartu eta balea arpoiez ehizatu zuten.”

Como cuenta José Luis Ansorena, “el 14 de mayo de 1901 varias lanchas, que regresaban a San Sebastián cargadas de sardina, vieron a una milla de distancia una ballena, que les perseguía. Los marineros redoblaron sus esfuerzos para alcanzar el puerto. Pero la ballena cambió de rumbo, dirigiéndose a Zumaia y Orio. Entonces salieron de San Sebastián diez lanchas, tripuladas por once hombres, para encontrarse con los de Orio, que abatieron con sus arpones a la ballena.”

Selon José Luis Ansorena, le 14 mai 1901 de nombreuses barques, qui revenaient de Saint Sébastien remplies de sardines, virent à 1 mille de distance une baleine qui les suivait. Les marins redoublèrent d’effort pour rejoindre le port. Mais la baleine changea de direction, et se dirigea vers Zumaia et Orio. Dix barques sortirent alors de Saint Sébastien, chargées de onze marins, pour se retrouver avec ceux d’Orio, qui tuèrent la baleine de leurs harpons.

✓ **Ene mutil 1-2 – 6'32''** (trad.)

Ene mutilik ttipiena,
Ene mutilik maitena,
Habil harat, habil hunat,
Mastañoaren puntarat,
Mastañoaren puntalat eta
Ageri denez leihorra.

Ene nagusi maitea,
Heldu naiz ongi tristerik:
Ez dut ikusi leihorrik
Ez eta ere belarik.
Norbeit yan behar baduzie,
Hil nezazie lehenik.

Ene mutilik ttipiena,
Ene mutilik maitena,
Habil harat, habil hunat,
Mastañoaren puntarat,
Mastañoaren puntalat eta
Ageri denez leihorra.

Ene nagusi maitea,
Heldu naiz alegerarik:
Ikusi ditut leihorrak,
Angeletareko hiriak.
Zure arreba Mariena
Galerian yosten dena."

XVIII mendeko kantu lapurtarra, ontzi bateko itsasmutilari eskainia.

Canción labortana del siglo XVIII dedicada al joven grumete de un barco.

Chanson labourdine du XVIIe siècle dédié à un jeune mousse.

✓ **Zarrantzako penak – 5'02''** (trad.)

Hainitzen ahotikan bai diat aditu,
Denborak lehendanik direla ematu,
Mainak aurthen gurekin izatu baitire,
Mintzatu beharko ziteian bertzela ere.
Noiz ere baitzituen hamasei otsailak,
Eman izan gintuan hiritikan belak.
Ilhabete hunek gintuan fagoratu,
Ordainez martxoak xoil kruelki tratatu.
Martxoak hirurean hasi alta hartzen,
Itsasoa zuan haizez osoki armatzen,

Ez huan ordutikan hilaren finaraino,
Izatu pausurik guretzat egundaino.
Zenbat belatxo hartze, zenbat trebes jartze,
Papaioa nausi eta gabiatik galtze,
Hamahiruraino gintian frogatu,
Momentu tristerikan han artean pasatu.
Hamalaurean huen haizea hain handi,
Halaber itsasoa hainbat izigarri,
Non baikinduan jarri biharamun artian,
Su eta khepean hekin burua etsian.

Nôtre Dame de Sarrance ("Zarrantza") Donibane Lohizuneko badian ainguratu ohi zen XVII mendeko balea-ontzia zen. Kantua 1690 urtearen ingurukoa da. Patri Urkizuren ustez, Zarrantzak 1688 eta 1690 urteen artean Ternuarako bidean izan zituen arazoak azaltzen ditu.

Nôtre Dame de Sarrance ("Zarrantza") era un barco ballenero del siglo XVII que solía fondear en la bahía de San Juan de Luz. La canción data del año 1690 más o menos. Patri Urkizu cree que probablemente relata los problemas que sufrió el Zarrantza en su ruta de navegación por Terranova entre los años 1688 y 1690.

Notre Dame de Sarrance "Zarrantza" était un baleinier du XVII siècle qui avait l'habitude de mouiller en baie de St Jean de Luz. Cette chanson date aux alentours de 1690. Patxi Urkizu pense qu'elle conte probablement des problèmes rencontrés lors de la traversée du Zarrantza vers Terre-Neuve entre 1688 et 1690.

✓ **Itsasoa laino dago** – 6'18'' (trad.)

Itsasoa laino dago
Baionako barraraino:
Nik zu zaitut maiteago
xoriak bere umiak baino.
Izar xuriz mila dago
iparretik hegoraino.
Nik zu zaitut maiteago
ilargiak gaua baino.

Lo egizu, egizu lo
deskantsuan bihar artio.
Nik zu zaitut maiteago
gau beltzean loa baino.
Itsasoa laino dago
Baionako barraraino:
Nik zu zaitut maiteago
xoriak bere umiak baino.

Azkuek 1901. urtean editatu zuen herriko doinu hau seaska-kantutzat hartzen da.

Esta popular melodía que editó Azkue en 1901 se considera una canción de cuna.

Cette mélodie populaire éditée par Azkue en 1901 est considérée comme une berceuse.

✓ **Mariñeluarekin enamoratua** – 5'36'' (trad.)

Markes baten alaba interesatua
marineruarekin enamoratua
deskubritu gaberik bere sekretua
amodioa zeukan barrenan sartua.

Egun seinalea zen gogoan hartzeko
esan ziola haren etxera joateko.
Deseo dudán hitz hau manifestatzeko
zurekin, Antonio, nago izateko.

Eduki dezakezu ongi sinistua
aspaldian nengoela zutaz gustatua.
Ez zaitut nik utziko desanparatua
hala egiten dizut gaur juramentua.

Konformatu ziraden elkarren artean
ezkonduko zirela hurrengo urtean.
Eskola ikasteko bien bitartean
beraren herritikan guztiz aparteán.

Itsasgizon batekin maitemindu zen markesaren alabari buruzko herriko bertso hauek “Un canadien errant” Québec-eko Antoine Gerin-Lajoiek konposatutako doinuarekin uztartu ditugu. Doinu hori sorterriko ereserki bihurtu da kanadiarrentzat, bereziki 1755 eta 1763 urteen artean herbesteratutako akadiarrentzat, borondatez kontra egotziriko askoren istorioa azaltzen baitu. Era horretan, aintzinako euskal itsasgizonek elkartutako herrialdeak sinbolikoki anaikidetu nahi izan ditugu.

Hemos unido estos versos tradicionales sobre la hija de una marquesa que se enamoró de un marinero con una canción compuesta por Antoine Gerin-Lajoie de

Québec, “Un canadien errant”, que se ha convertido casi en un himno patriótico sobre el exilio al que fueron forzados muchos canadienses, especialmente los acadianos, entre los años 1755 y 1763. Hemos querido así hermanar simbólicamente las mismas tierras que unieron los viajes de los marineros vascos.

Nous avons regroupé ces vers traditionnels traitant de la fille d'une marquise tombant amoureuse d'un marin, cette chanson composée par Antoine Gerin-Lajoie “un canadien errant” décrit un véritable hymne patriotique sur l'exil auquel furent confrontés de nombreux canadiens, (en particulier acadiens) entre 1775 et 1763. Nous avons aussi souhaité unir symboliquement les mêmes terres qui rassemblèrent les voyages des marins basques.